


EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %9,4 gutxituko da 2020an

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

BPGA 2020
-9,4




2020ko hirugarren hiruhilekoko BPGaren datuak eta azken hilabeteetan argitaratutako adierazle nagusiak xehetasunez ezagutu ondoren, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eguneratu egin ditu 2020-2021 aldirako EAEko ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak. Horren ondorioa da krisi ekonomikoa ez dela izango lehen uste baino gogorragoa (-%10,1), baina baita susperraldia motelagoa izango dela ere, pandemiaren kutsatzeen bigarren boladaren intentsitatearen ondorioz.

Izan ere, pandemiaren berragerpenak eta hura kontrolatzeko ezarri ziren murrizketek eragin handia izango dute turismoan, ostalaritzan eta kultura jardueretan; beraz, hirugarren hiruhilekoan hasitako susperraldia galgatu egingo da urteko azken hilabeteetan. Zehazkiago adierazita, EAEko BPGA %9,4 jaitsiko da 2020an. Susperraldia 2021eko bigarren hiruhilekoan iritsiko da, hazkunde hutsaleko lehen hiruhilekoaren ostean, eta jarduera tasa %8,6 haziko da 2021ean.


AZKEN KONTSUMOA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Zehatzago esanda, barne eskariaren bi osagai nagusiek beherakada esanguratsuak izango dituzte 2020an, sektoreen azterketan gertatzen den bezala, non adar guztiak modu esanguratsuan gutxituko baitira. 2021erako, BPGaren agregatu guztiek, eskaintzaren zein eskariaren aldetik, jarduera ekonomikoaren aurrerapenari ekarpen positiboa egitea espero da.

Enpleguan izango duen eraginak handia izaten jarraituko du. Ekonomiak eskatzen duen lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua 2020an %8,1 jaitsiko dela aurreikusten da. 2021ean, ordea, lanpostuen kopurua %7,0 haziko da. Azkenik, langabezia tasa %10,3 izango da 2020an, eta %9,8, berriaz, 2021ean.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza atsa



LANGABEZIA TASA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.